

"Nacionalismo español"

Euskaldunon Egunkaria, 1996-08-11: 3.

Aspaldi honetan bada munduko kalteak nazionalismoari atxikitzeke joera anker bat. Eta beti, txikiari, Estatuan eta Inperioan gutxiengo izan eta askatasun borroka zailean dabilen herriari lotua, Txetxenia, kasu, eta ez Frantzia ahaltsua Pazifikoan inposatzen ari den aginkeria atomikoari. Badirudi historian zehar handiek egindako lur eta herri maukak berez mafiek diruen antzera bere buruak zuritzen dituztela, eta justizian galtzaile suertatu direnak, bere txandako krisiaren irteera zain loak hartuta geratu behar dutela, Lituania eta Kroazia orain gutxi arte bezala. Beste hainbeste esan dezakegu gertuagotik begiratuta gaur euskaldunoi gertatzen ari zaigunaz: noizbait EAJk eta EAK elkar hartu dute Ajuria Eneako mahaiari justiziaren alde gardentasuna exijitzeko, eta aspaldi tranpa agerietan sartuta dabilen PSOE sozialistak eta berria den PP kapitalistak, Espainiako ezker eta eskuin klasikoak, bat egin dute azkar Espainiako sekretu ofiziala (sekretuak krimen ikaragarri bat tapatzen badu ere!) hautsi ezina dela aitzakiarekin Guardia Zibilaren ispiritua militarra defendatzeko. Honi ez bazaio nazionalismo espainola deitzen, ez dakit zein izen asmatu beharko dugun aliantza susmagarri hau salatzeke.